



M. 12463

R. 6156

A.T.V.
4152



LABORARI

KANTARI

Beñat • Manez • Pampi
Popol • Benat

V.
7

L A B O R A R I

-:-:-:-:-:-:-:-:-

- Elgarrekin lanik aski

Bakarrik gauza guti

-- Aita, bizi goxoa omen da Parise hirian

Ezin bizia dugu Eskual-Herrian

- Seme, itsas untzia delarik tempesta
barnian

Ez duk utziko bere gain agian

- I -

L A B O R A R I

I- Arbola gainean
Xoria da kantatzen
Kantatezn da eta
Bazterrak inharrosten
Inharosi eta
Ostoa da erortzen
Eskual bihotza da
Bilaiz egoiten

Bilaizi ondoan
Han diran errabian
Xiloka beltzian
Handik elki nahian
Handik elki eta
Kantatzerat abian
Lagun zonbait bidian
Ikusiko agian ...

La, la, la,

II- Goiz argi eder bat
Beti jeikitzen nunbait
Nunbait jeiki eta
Zorionean zonbait
Bizi hobeago
Denek dukete gogo
Bainan bakarrik
Ezin egin asmo.

- 2 -

Haur baten sortzeko
Sofritze beharrezko
Bizi hobetzeko
legeen bihurtzeko
Nor da abiatzen ?
Lagun zonbaiten biltzen
Herriaren salbatzen
herriolari kentzen

la, la , la...

III- Gaur eskual herrian
Zuhana da landatzen
landatzen da eta
gero fruitu ekartzen
fruitu ekar eta
Aizoa da kexatzen ...
Iraultzaria
Madarikatzen

Jar giten ildoan
igeli izerdian
izerdian eta
lepo zainak hegian
besoez eta haginez
lagun bat zorionez
Ikusiho dugunez

La, la, la,

- 3 -

- Aita baten penak zoin diren

Aipatzeko gira hemen

- Seme baten arrangureri

Gauden oro beharri !

- Herri baten tripako minak

Behar sendatzaile finak ...

- 4 -

U L I B E L T Z A K

Aita, esnea saltzen duzularik
Nor da harekin gizontzen
Eroslea ala artekoa
Esne horen edalea, edo saltzalea ?

Esnearen gizenak egiten du artekoen fortuna
Eta gaxura saltzen dute zure esnea bezala
Huntan ere benefizio ateraz, beren gastien arabera!

Zu zira behi esnadun arraroa
Hiriko langilea aldiz
Aratxe gaxura-xurgatzaile perfeta !

(Bazterretik kantuz)

Seme horrek erran duenez :::
hantzen gira gaxurez !!
Gizendu nahi baduzu esnez
Egineu zira nekez ...
Esne slsa janen dugunez
Orai gaude beldurrez !

Aita Makinon etaz usu mintzo zirezte, ez dituztela
prezioak zien alde egiten
Bainan ez baduzie elgar aditzen heien dokua
Aise duzie laguntzen
Hauzo herriko behi bat erosi duzu Pettan makinonari
Eta atzo jakin 50 000 libera sobera pagatu duzula

Nork du lana egiten
No da aberasten

- 5 -

(Bazterretik kantuz)

Kostaleta hiri ebatsi ...
Hezur hutsa itzuli
Tripa handi bizitzekotan
Jar mami jale hoitan
hezur guzitan bada mami
Jan bakotxak beriari

Aita ! Arto hazitakoa, kentzen dautzute...
Zuri kendurik, norbeitek egin behar
duela, untsa badakite, zure ordain
buru jarriak diren horiek !!!

Goserik hiltzen denari so
Aserik dagonari jan-galdea
heldu zaio
Oillarzak oilaskoari dio "hordago"
Hegal pean dituelarik
Berrogoi ektara arto hazitako

(bazterretik)

Zango luze, buru haundia
haizeak du lotkia
Behartuko zaizko hegalak
Berrogoi ektarakoak !!!!

- 5 -

Aita ! esteka-sokaren koropiloa desegiterat
zira abiatu, bainan laster ere ohartu
zakur haundiak zirela zure aintzinean pasatu...
Hogoi-ta sei ektara ontasun ez dituzu ...
Nola Crédit Agricole zutan fidatu ?

TTipia ez da haunditzen ahal
Haundiak aldiz, ttipia jaten ahal !!

(Bazterretik kantuz)

Guk etxean kasu gehiago
haur ttipiendako
Pobrearen lagun ez denak
Merezi ditu "onak"

Aita ! balio dea aipatzea "Safer-a"
Bi klient dituelarik, bilakatzen da okerra
Pobrea balinbada ezkerre
Eskuinari dio lehenik eskerra !
Oraino egun hautan behauzen
"Safer-a" saltzaile omen zen
Bi erosle dira presentatzen
TTipiena ostiko batez du igortzen

Nork du gerla hasia ...
TTipia delarik noizbait jazarria
Atxiki nahiz "inbidoari" "idukia" !!

(bazterretik kantuz)

Soka tiran hasiko dira
Guk soin alderat tira ?
Hau da aberats okitia..
Xixta-zakok uzkia !!!

- 7 -

Aita ! Lur-berri, bainan berri zahar !
Nagusiek beti baliatu behar :
"Langileak gehiago pagatuz
Laborariena doa ttippituz !!!
"Laborari - ta langile
Zien artean oldar ! ...
Guk nagusiek anartean har indar ! ...

Ikusi ditutzia sekulan
Bi suge elgar ausiki nahian ??

(Bazterretik kantuz)

Erosle nintzan villa neuve
Harat orduko zen borde
Baratzean huts(gune frango
Ez bada aza-ondo !!...

Aita! lantegi batean, nagusia dago
Bere ontasun eta tresnen jabe
Mozkinetarik benefizio ateratzeko
Ez da batere herabe

Zuk ere erosten ditutzu eta untsa
Pagatzen zure ontasun eta tresnak ..
Nor da zure mozkinen prezio egile ...
Eta benefizioen karkulatzaile ?

(Bazterretik kantuz)

Jartzen zauzkigu kexaturik
Hobe dut ixildurik
Aski zozokeri erranik
Baduk hik oraindanik

- 8 -

KANPOKO SALDA :

Aita! zuk erran duzu behar dugula bizi
Beti debalde izerdi ! orai aski !
Benarik har ez dezan, erran diot amari
"Pariseko lantegirat, banoa ni ..."

Bizi gozo bat nahi dut nik
Ametsak xoraturik

Libro bizitzekotan, behar dut sos gehiago
Larunbat eta igande pausatzeko ...
Auzoak zer erranen, hemen ginauden gako
Han bakotxa bizitzen da, beretako

Bizi gozo bat nahi dut nik
Ametsak xoraturik

Udako bakantzetan, jinen niz ikusterat
Zien laguntzeko diru ekartzerat
Lege gizonak irriz, zien kontsolatzerat
Hori sekulan jin ez jadin begitarat

Bizi gozo bat nahi dut nik
Ametsak xoraturik

NEVADARAT JOAN NINTZAN

Nevadarat joan nintzan, dirurikan gabe
handik etortzekotan, maitia bost milliyen

Aĩ aĩ, aĩ..... jabe

ametsaren lana

Ait'amen erranetarik ibil bagina

Urteak joan ziren, on'ta tzar nahaste

Nere fortuna heiekin eta denak berriz haste

Aĩ, aĩ, aĩ ametsaren lana

- 9 -

E Z A Z O L A K

Parisen bat gehiago

Leku uzten du guretako

Pariserat bat gehiago

Artaldea ttippiago

Lekukoek jan gehiago

Hutsak bete haunditzeko

Parisen bat gehiago

Leku uzten du guretako

Hiri horietan bada jende

Ez daike lagunik gabe

Lehenago zenbat beste

Joanik ez da bidez-bide ...

Parisen bat gehiago...

Lanik ez-da herri huntan

Daba leku hiri horietan

Uros bizi nahi duenak

zabaldu behar hegalak....

Parisen bat gehiago....

- 10 -

A I T A R E N A K

Zendako beti lasterka
Jende gaizo hori doa
Sos madarikatu horren
Ondotik du hatsa galtzen...
Aberatsak baliatzen
Ogi-lurra dauzkutela kentzen
Trixterik nago Jainkoa
Ardien jabe otsoa
Ote da beti beharrezkoa ?

Beharrezkoa da haurrak sortzia
Bihar joko dute horiek ortzia !

Ilhuna jausten denian
Etxe hutsaren gainean
Ait!amak su-bazterrian
Elgarri so ixilian
Penaz nigarra begian
Su-argirik gabe bihotzian
Egun guzian lanian
Etxerat bildu ondoan
Hotzik gaude iduri neguan...

Negurik ez dago ustez zeruan
Betikoa aldiz bai ifernuan

- II -

Gure herriko bidetan
Botz guti ari da kantatzen
Ostatu gume xokotan
Gazte guti da musetan
Pilotarik ez plazetan
Mutil-neskato dire hiritan
Arrotzak gure lurretan
Ihiztariak gure menditan
Ondokariak gure oihanetan

Tempesta heldu da hego-aldeetik
Axeriak jelgi zien xilotik

Gaitzik ez dut desiratzen
Zauztener ene behatzen
Dautzutet hemen aitortzen
Aita baten pena zer den
Seme bat delarik urruntzen
Bihotza errotik ateratzen
Gure herrian arimarik
Ez dut gehiago senditzen
Zainak odolez zaizkigu husten

Landaretik lore, loretik hazi
Hazitik fruitua, ta berriz hasi.....

- 12 -

DISCOURS DE CONSOLATION

Pourquoi toujours ces lamentations ?
Vous allez me faire pleurer... Attention !
Et puis, moi je connais la législation
Puisque c'est nous qui la faisons ...

C'est moi le Député
S'il y a un méchoui
Je vais aller manger !!

Si vous avez des problèmes
Si vous ne voulez pas appliquer les lois
que nous faisons, venez, surtout me voir,
(avec un poulet par exemple
Je vais dire à mon secrétaire de noter
Je vais arranger ça et noyer tous ces
chagrins dans la Seine ou la Loire

C'est moi le Député ...

Moi aussi, j'ai des problèmes
On est trop payé pour ce qu'on fait
C'est d'accord
On a tous les frais payés, c'est d'accord
On a tout le piston qu'on veut,
c'est d'accord, oui mais ! Je suis à la
majorité, moi, Moi aussi j'ai des problèmes
A l'Assemblée Nationale
Quand on discute la nuit
On crève de sommeil

C'est moi le député...

Et puis vous savez il faut avoir un peu
d'humour dans la vie. Il faut garder le
sourire.....

Moi aussi, qu'est-ce que je n'entends pas !!
(bazterretik : "c'est moi le député..."
Et puis si ça ne marche plus "député"
Il faut savoir se reconvertir
Je me fais sénateur ou ministre
Il paraît que c'est encore mieux

- 13 -

HITZAK ETA OBRAK

Hitz eta hitz
Elhe eta elhe
Mintzo ta solas
Politika saltsa
Salsa ona da
Lodiago lohia
Haundiago saria
Norat haize , harat aise

I- Kolore xuri, beltz ala gorri
Sosak notat duen ixurgi
Eta harat lasterka beti
Orok deputatu nahi
Badukete zerbait sendi

Zonbat, zonbat izerdiren saria

II- Hilabeteko paga dute
Guk urtekoa bezala
Paga alxatu beharrez
Periserat joaiten dira "aferez"
Joan-jinek eta afari haundiak
Pagaturikdituzte gure sosez

Zonbat, zonbat izerdiren saria...

- 14 4

(Kantu zaharra)

OI ! LABORARI GACHUA !

Oi ! Laborari gachua !
Hihaurek jaten arthua
Ogi eta ardo geñatzen auherren asetzeko
halere hain maite mula artsaiñek otsua

Ilhaginak aberasten
Arimak hain untsa galtzen
Phezian eta khuntietan zer hek ebasten
Haiekila behar duke Jinkoak aizina ukhen

Øihenzaiñak eta guardak
Kontzenziatzko gizonak
Gerak bazaitze farzitzen ihesiren tie postak
Laguner hareraziren bardin gaizo sinheskorak

Sarjanten goldenbarrak
Dirade gizon okherrak
Haien egitekuetarik egiten tie Indiak :
Aisa pergut izanen dira haier behatzen direnak

Sarjant eta notariak
Oi arnes nesesariak !
Haien elhe ülhün gezürrek nahasten gaiza tchipiak
Ezta lagün hobiagorik bertan hüsteko etchiak

Intermède musical

(Pariseko ambientza !!! Tituli)

- 15 -

S E M E A R E N A K

Eskualduna zer ditaiken ez dakit oraino
Hemen hutsa senditzen dut, bihots barneraino
Esplikatu behar ta ez dakit erraiteko ...

Amets gaixto itsusiek nute inguratzen
Sos egarri, hiri huntan ez bainiz lokartzen
Eskual herria zuri, beti nago pentsatzen

Ez nuke nahi irringari agertu aitari
Nik lagundu behar eta heiek egiten ni
Nola sinesarazi han nahi dutala bizi

Parisen dut ezin egin jan ez edan onik
Aratsetan, akiturik, heldu niz lanetik
Zenbait aldi pentsatzen badutanez bururik..

Ene lagun herrikoak mintzo niz urrundik
Ene boza heltzen bada, beha zizte handik
Lana ekar herrirat, ez jin hunat nihundik

Kontseilutan ez niz trebe, hobe dut ixildu
Elhe guti, etxe-alde behar abiatu
Pobreak elgarrekin, biziko borrokatu !!

Lagunekin nik itxura, pollitik banuke
Jaun xapeldun, "ttattarekin" agertzen banintze
Nihaur aberasturik, heiek utzirik gose...

Denen arte behar dugu karga bizkartu
Denen arte, pobrean alde, legeak bihurtu
Horen egitekotan, behar denak uztartu....

- 16 -

Kantu zahar

Agur Xiberoa ...
Bazter guzietako xokorik ejjerrena !
Agur sor lekia
Zuri ditut ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik
Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zu ütziz geroztik
Bizi nüz trixterik
Abandonaturik
Ezpeita herririk
Paris'ez besterik
Zu bezalakorik

I- Sor lekia ützirik gazte nintzalarik
Parisen sartü nintzan kurajez beterik
Plazerez gose eta бүrian harturik
Behar niela alagera bizi
Bostetan gerostik
Nigar egiten dit
Ziberua zuri !

II- Palazio ederretan gira alojatzen ...
Eta segür goratik aide freska hartzen
Gain behera so-ginik betzait üdüritzen
Orhin gainen nitzala agitzen
Ben'eztira heben
Bazterrak berdatzen
Txoriak kantatzen

III- Ametsa, lagünt nezak ni atharatzerat
Ene azken egünen han iragaitera
Orhiko txoriaren kantüz behatzera
Pharka ditzan nik egin nigarrak
Hots! Ziberotarrak
Aintzinian gora
Uxladün bandera !

- 17 -

Aita Semeenak

Semeak : Ixilik beharniozu agertu
Itzultzerat bainiz ni menturatu
Ez zituzte nahi pribatu
Ogia ahotik kendu
Entzun nahi bakarrik "barkamendu"

Aitak : Bihotzian loria dauket eta
Agertzeko lotsaturik bezaka
Barkamendu hik diona
hori duk soberakina
Seme bat etxean, zer zoriona

Denek : ez, ez, ez,... bake kantietan
ez, ez, ez, itxurezkoetan

Semeak : Bereala egia zuri aitortu
EZ dut nahi, lur huntan aberastu
TTipien alde jokatu
Sobera duenari hartu
Dauzkagun diferentziak legundu

Aitak : Chartzen hiza, seme zer diokan
zuzentasunik ez duk mundu huntan
Hire idai eder horetan
Hi ere finkatzekotan
Jarriko hute ertzoen saldotan

Denek : Ez, ez, ez

- 18 -

Semeak :

Ez niz jarriko ertzoen saldotan
Lagunik ez ote dut herri huntan
Bakarrik gelditzekotan
Ez niz hasiko lan hortan
Bainan zonbat "ni" ez da bazterretan !

Aitak :

Ez ikustekotan zikilimarro
Ez zakala bere zilotik harro
Joanen zauzte lerroz-lerro
Ondotik bai irriz gero
Aberatsen arbolak hadik erro !!

Ez, ez, ez, **bake** kantietan (Denek)
Ez, ez, ez, itxurezkotan

: Semeak :

Arbola landatuko dugu guk ere
Nehoren ganik lotsamenik gabe
Multxoan bilduz, nik uste
Eginen dugula bide
Enetako borroka orai haste.

Aitak :

Egurra mozten baduk patarrean
Atera beharko duk bizkarrean
Ni ere entseatu nindian
Ene gazte denboretan
Bakarrik gelditu, desperetan ...

Ez, ez, ez..... (Denek)

- 19 -

Semeak :

Badakik hik lan nekeari lotzen
Horen doia ikasi dut Parisen
Bi bide dira gelditzen
Pobrea dugu salbatzen
Edo beti semeak dira galtzen

Aitak :

Arrasoinka ari bainiz hirekin
Abilena ez diat nahi egin
Ene indar guziekin
Buru eta besoekin
Hirekin ados nuk betiko behin

Denek : Ez, ez, ez,

Semeak :

Haragi, esne, arta edo beste
Beharrezkoak direla diote
Laborariak ez ote
Hazkurri horietan pharte ?
Guk aberats haztea : noiz arte ?

Aitak :

Egia erran ez gituk hau gaizki
Bainan lehenago ginkan hobeki
Orai ez sekulan aski
Lege orien gatik naski
Zorren pean gituzte egiazki...

Denek : Ez, ez, ez.....

Aita semeak :

Draikoak egiten du geroa
Negu gaistoa badugu igaitekoea
Indar lagun artekoa
Herri baten ostikoea
Oraino hemen da agertzekoea

Denek : ez, ez, ez....

- 20 -

Phesta airea

Denek : tra la la la

Berri on bat jiten denean

Oro jartzen umore onian

Berri on bat jiten denian

Kilikatzen du bihotzian

Tra la la la

Semeak :

Berria ez da bera jiten

Surik gabe ez kherik agertzen

Berria ez da bera jiten

Gaia nehork ez badu sortzen

Denek : Tra la la la

Aitak : Seme bat etxerat itxuli

Begitan nigarño bat ageri

Seme bat etxerat itzuli

Jan dezagun pheztaz axuri !!

Denek : Tra la la la ...

Semeak :

Lili bat dut begistatia
Sanoki nahi dut bizitzia
lili bat dut begistatia
laster duket nik ezkontzia

Tra la la la

Aitak :

Bada oraino jende sanorik
Laguntza estimatzen duenik
Bada oraino jende sanorik
Egiteko phesta ederrik

Tra la la la

Denek :

Herri batian gazteria
Astelehen iduri igandia
Herria batian, gazteria
Min hainitzen sendatzailia

Tra la la la

(Arbola gainea... hastean bezala)



